

Bosgarren zutabea



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Erribera, historian, sekula euskalduna izan ote den; horra hor Nafarroan, duela berrogei urtetik hona, hainbestean behin errepikatzen den eztabaida bizantziarra (eztabaida bizantziarra: eztabaida alferrekoa, zeinean alde bakoitzak ezin baitzickio frogatu bere baieztapenak beste aldeari). Jimeno Juriok, ortodoxoa baina zentzudunak, hala adierazi zuen euskarari buruzko bere obra handian: “Ez dakigu, eta ez dugu frogarik *bai* esateko, ezta *ez* esateko ere”. Zeharkako argudioak eta frogak eman zituen, hori bai, bertakoa izan edo ez, XVI. mendean Erriberan euskararen presentzia handia izango zela baieztatzeko.

Horrez gero, auzia argituko digun aurkikuntzarik ezean, Jimenok esan zuenetik haratago joan nahi izatea alferrik hitz egiteko gogoia baino ez da. Zientzia linguistikoa ikuspuntutik, mintzatzea mintzatzeagatik. Harritzea ere ez da; bere burua nabarmentzeko, jendea edozer eztabaidatzeko gauza da. Esaterako, ez al dabil hortik zehar kuadrilla bat, Lurra laua dela demostratzen saiatzen dena?

Erriberak ez baditu partekatzen Erresumaren erro euskaldunak bertako gainerako lurralde guztiakin, eta izaeraz euskalduna ez bada, orduan, zer da?

Hala ere, gaia astintzen denean, zientziaren, heterodoxiaren, arrazionalismoaren edo ospe oneko beste hitzen baten abaroan astindurik ere, ez da ezer demostratu edo frogatu nahi; besterik da hemen jokatzena. Eztabaidak erraiak mugitzen ditu –*Putz Pamplona, Tudela kapital*–, egunkarietako orriak ziurtatzen, une bateko loria ematen, protagonismo nahiak asetzen, eta curriculumak

luditzen, zeina ezinbestekoa baita karrera profesionala *kintakolumnismo* politiko-linguistikoan oinarritu duen inorentzat. Izan ere, Erriberan euskara historikoki mintzatu ote den argitu ezinean, benetan inporta dena da Nafarroako zonifikazio linguistikoari eusten dion postura politiko hegemonikoari (ez heterodoxoari, preseski) lur bat ematea, argudio-bide bat eskaintzea.

Adi, ordea, ze iritsiko da eguna arrazoibideari buelta eman eta argudioa sudurpean eztanda egiten ahal zaiena. Erribera, Nafarroako mapan eremu txikia betetzen duen txoko maitatu hori, euskalduna ez bada, horrek ez die euskalduntasun zipitzik ere kentzen Erresumako gainerako lurraldeei. Eta aldiz, beren arrazoiak ifrentzuan dakarren galdera inplizituak zalantza handi bat pitzen du: Erriberak ez baditu partekatzen Erresumaren erro euskaldunak bertako gainerako lurralde guztiakin, eta izaeraz –Erresumako gainerako lurraldeak ez bezala– euskalduna ez bada, orduan, zer da? ●

FINAL-ZORTZIRENAK

LAZKAO

Irailak 21, larunbata, 17:00
Areria aretoa

ELGOIBAR

Irailak 22, igandea, 17:00
Herriko Antzokia

GBT24

GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024

www.bertsozale.eus/gipuzkoakotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

